

AISIARAKO HEZKUNTZA FRANTZIAN

1936az geroztik Frantziako gobernu desberdinek aisiari buruz egin duten politikaren azterketa batek, bi ardatz nagusiri eman zaien garrantzia agerian jartzen dute. Hain zuzen ere, bi ardatz hauek kontraste nabarmenean agertzen dira Britainia Haundian egin izan den politikarekin alderatuz gero. Alde batetik, herritarren irudimena zirikatu da oporren inguruan eta bestetik neurriak hartu dira kultura demokratizatzeko. Aisiaren politikaren azpian dagoen ideologia honek latsu adieraz daiteke: denbora librearen konstantak ondorioztat lan-jardunaren iraupenaren murrizketa dakar eta gero eta oporraldi ordaindu luzeagoak izateko eskubidea, eta baita hesi sozio-kulturalak beharrezkoak, mundu guztiak erabiltzeko moduko aisia-ekipamenduak eta normaleak estatuak berak prestatzen eta ordaintzen dituen animadoreen menpean dauden abegi egiturak antolatzea ere.

Britainia Haundia, esaterako, animazio-lan hau gehien bat eskola-giroan egiten da 1981 ean gobernu sozialista agintera iristean, onartu egin du joera hau eta bultzada berri bat eman dio politika honi (bostgarren opor-aste ordaindua, oinigituren eta aisia-ekipamenduen garapena, turismoarena batez ere, gero eta diru-laguntza handiagoak kultur-egintzei, abegi-egituren sendotze eta hedatzea, batez ere gazteentzakoak direnean). Britainia Haundian, aldiz, gobernu zentralaren aldaketak oso eragin ahula du aisia-politikan. Frantzian, berriz, esan liteke estatuak bere gain hartu duela gero eta handiagoz ari den aisiaren eskaria eta indartu egin duela gainera.

1981 az geroztik Frantzian hartu diren neurriak, badirudi ekipamenduak eta abegi-egiturak udal mailan sortzea izan dutela

helburu, baina orain galdetu beharko litza-teke Estatuak eta udalak bere gain hain neurri zabalean aisia hartzea, batez ere gazteei dagokienean, ez zenbateraino den positiboa eta frantsesen gogokoa. Egoera honek, britainiarren ikuspuntutik, Frantzian eskolako hezkuntzan aisiari leku gutxi ematea izango luke kritikakizun, izan ere erabat porrot egin baitu eskola-erakundeak gazteak aisiarako eta derrigorrean intelektualak ez diren ekintzatarako prestamena eskuratzeari dagokionean.

Ondorengo artikulua honetan, Linda HAN-TRAISEk frantsesen eritzi sail bat eskaintzen du haurrak prestatzeaz eta hezteaz aisiagaitan eta gainera testuinguru britainiarrekiko dituen aldeak azpimarratzen ditu.

AISIEI BURUZKO JARREREN AZTERKETA

Hemen eskaintzen diren iritziak elkar-irizketa erdi-gidatuetan jasoak dira Parisaldeko erdi-tamainako hiri batean (Hantrais, 1983). Estudioaren helburua aisia eta familiaren arteko elkarrekintza aztertzea zen Berrogeita lau testigantza jaso dira, 176 pertsonatako txantilo batetik.

Gure helbururako garrantzizkoa da esatea erantzunetan sarri agertzen den famili motak familiak kanpokaldera irekita egoiteak duen esanahia azpimarratzen duela.

Elkarrizketatik sortzen den aisia-etaulak ñabardura desberdinak eskaintzen ditu sexuen arabera: txantiloiko gizonaentzatzat eguneroko lanaren errutina haustea eta aldatzearen sinonimo da aisia, baita aberaste pertsonal, askatasun eta atsegin-iturri ere;

emakumezkoentzat, lehen postuan, beren etxetik irteko aukera bat eskaintzen die. Berauek ere eguneroko bizitzaren erritmoak etete eta aldatzea bilatzen dute, baina elementu hauek beren senarren erantzunetan baino bakanago agertzen dira. Emakume batzuentzat aisia sormen eta egintza-sorburu izango da. Famili bizitzaren baitan dagoen anibalentzia honek gataskak eta tirandurak sortu behar dituela ematen du, baina jarrerak eta praktika bilakaera bizkor batean dauden testuinguru batean, badirudi ez dela horrelakorik gertatzen, izan ere aisia-ekintza gogokoenak normalean familiako beste senideekin batera burutzen baitira. Hau hainbat gehiago gertatzen da testuinguru ingelesean, non etxekoen aisiak oso pribatizatuak baitira.

AISIA-EKINTZEN APRENDIZAIA

Interesgarria da esatea galderak egin zaizkien pertsonak aisia-ekintzei gaur baino askoz garrantzi txikiagoa ematen zitzaizkien garai batean haziak direla: aisiaren aroa hasiberritan besterik ez zegoen. Berauen testigantzetatik ateratzen denez, aisia, hitz honek beraientzat eta gurasoentzat zentzuren bat baldin bazuen, ia famili arazo bat besterik ez zen. Aisia eta famili bizitza gauza bakarra ziren, eta kontzepzio honi familia handiak izateak lagundu egin zion. Erantzuleek, oro har, oso iritzi positiboa dute aldi hartaz. Normalean aisia haiek hartzen zuten forma famili bilerak edo famili irteerak izan ohi ziren. Aldiz, belaunaldi berak Britainia Handian normaltzat zeukan kirol eta gizarte-kultur ekintza ugari praktikatzea etxetik kanpo, bai eskola-giroan eta bai borondatezkoek antolaturiko klubetan.

Jakina, alde nabarmena dago erantzun hauetan baserri-giroan edo Parisen gaztaroa egindakoak izan. Azken kasu honetan aukera ugari eskaintzen zitzaizkion bertan. Lehendabiziko kasuan, ez zegoen garraibiderik eta dirurik ere gehiegi, eta "aisiarik ez zen praktikatzen", edo "sofistikaturik" ez behintzat. Bizitza aktiboak, laneko lagunek, enpresa-komiteek irakatsi izan dituzte tenisa, igeriketa, irteera eta txangoak. Etxetik kanpora ekintzaren bat praktikatu izan duenak aitortzen zuen bere ekimenari zor zitzaizkion, eta hau hainbat egiazkoagoa zen neskabilen kasuan, izan ere gizarte-maila pribilegiatu samarrean dantza egitea edo pianoa beste iretenbiderik ez baitzuten. Gizarte-maila apalekoek esaten dute gurasoek debekatu egiten zieten kalean jolas egitea eta askok esaten dute ez zutela inolako aisiarik izan etxetik kanpo nagusiak izan arte. Batzu-

rentzat hain atsegina zen famili giroa, beste batzuentzat itogarri bihurtzen zen, eta honelakoentzat nagusiaroa kanpoko ekintzarekin eta famili hertsapenetatik askapenarekin asoziatzen dute.

HAURREN ORIENTABIDEA

Oso bakanak dira beren gurasoen orientabidez familiaz kanpoko aisia-ekintzatan hasi zirela diotenak. Bistan dago guraso hauek ez dutela aurretik izan zuten ereduaren arabera jokatzeko eta gaur egun beren seme-alabei, batez ere hamar bat urte bitartean, berek ezagutu ez zutenak erakusten saiatzen direla. Baina ia aho batez aitortzen dute, inori ez zaiola goitik behera ekintzarik ezarri behar. Haurra ez dela behartu behar, orientatu baizik diote guztiek: kontseilu edo burubudeak eman, aukera eskaini, ekintzak iradoki, aisiak sustatu, baina beti hautatzeko askatasuna eman.

Kontseilari-paper hau betetzeko, gurasoek dauden aukerez informatu beharra dute, seme-alabei kontaktoak eskaini behar zaizkie, eta beren bitarteko finantzarioen arabera, aisia-ekintzatan partaidetza bultzatu. Bultzada hau ez da izango kanpora irekitzeko soilik, baita amaren gonapetik irteko ere. Emakume aktiboentzat, astean zehar metaturiko etxeko lana asteburuan egin behar dutenentzat, haurrek etxetik kanpora aisia-ordu batzu izatea ondo etor liteke, baina inork ez du faktore hau aipatu. Zenbait arrisku bat ere aipatu du: guraso batzuk berek txikitzen izan ez dutenera gehiegi bultzada ditzakete beren seme-alabak eta ondorioz ulergarri gerta daiteke dezepzio bat izatea haurrek proposaturiko ekintza guztiak praktikatzeko ez dituztenean.

ARDURAREIM PARTAIDETZA

Oro har, bi gurasoak maila berean sentitzen dira arduradun edo erantzule beren seme-alaben aisiarekiko, baina beste pertsona batzuren burubideak aisiak ikasterakoan eta aukera desberdinei buruzko sentibilizazioan askoz gutxiago nabarmentzen dira. Aiton-amonak eta familiako beste senide batzu zenbaitetan aisiakide bezala agertzen dira, edo haurrak beren ardurapean hartzen dituzte oporraldiaren parte batean, eta hau "normaltzat" jotzen zen eta ondorioz, ez zuen sortzen aparteko komentariorik. Aiton-amonen partaidetza honek, aisia-ekintzatan, bi alderdi ditu: gurasoei zama arintzea eta belaunaldien arteko hurbiltzeari laguntzea.

ESKOLAREN ARDURA AISIA-GAIETAN

Frantsesek anibalentzia nabaria agertu dute beren erantzunetan, eskolak aisia-gaietan duen paperaz hitzegiterakoan. Nahiz eta denak ados egon eskolak baduela zeregin bat gai honetan, batez ere eskolaurrean eta lehen hezkuntzan, eta gurasoek eskaini ezin ditzaketen aisia-aukerak eskaini behar dituela aitortu, mugei buruz zalantza handiak daude eta batzutan ez dute uste eskolak horretarako gaitasunik duenik. Muga hauek batzutan finantzabidezkoak edo ekipamenduzkoak dira, baina beste batzutan irakasleek berek dituzten jarreretan ere aurkitzen dira. Gainera ikasleak ere entusiasmo gehiegirik ez dutela ere esan dute. Zenbait gurasok uste dute irakaslea haurren aisiaz arduratzea bere benetako eginbeharrari uko egitea adinaxe dela eta hesi zehatza jartzen dute eskola lantokiaren artean eta aisia-ekintzak "bidezkotzat" ematen diren kanpo-bizitzaren artean.

Bestalde inkesta honetan agertzen diren datuen modukoak Kultura-Ministraritzak bere aldetik ere jasoak ditu: % 53,5ek onartzen zuten eskolak izan lezakeela eragineik kulturarako sentsibilizazioa sortzeko orduan; baina, aldiz, % 46,7k berezko zerbait dela aitortzen zuten. Bitxia badirudi ere, eskolak kulturarako sentsibilizatzeko izan lezakeen rola dela-eta, betekizun hau gehien auzitan jartzen dutenak ikasketaldi luzeenak egin dituztenak eta gizarte-maila sozio-ekonomiko pribilegiatuak dira.

Beraz, eskolak zeregin garrantzizkoa luke puntu honetan baina nekez jabetuko da bere egitekoaz, mentalitate hauek dauden bitartean eta irakasleak ere behar bezala prestatzen ez direlarik.

Aisia-ekintzak eskola-munduan sartze honetan bereziki nabarmentzen da Britainia Handia. Eskolak zeregin hau eskolaren gurasoekin batera eta funtsezkotzat jotzen da betekizun hau nagusiarako haurrak prestatzeko. Zentzu honetan, tradizio luzea dago britainiarren artean gazteak ekin-tza artistiko, sozio-kulturazko eta kirolezkoetan prestatzekoari dagokionean.

Etorkizuneko irakaslea hautatzerakoan, oso kontutan hartzen da Ingalaterran ez irakaslegaiaren formazioa soilik, bere kualifikazio akademiakoaren arabera, baita eskolaz kanpoko esparruan dituen trebetasunak ere. Hezkuntza fisikoko irakasle batek behar duen kualifikazioa izan gabe ere, gauza izan behar du larunbat goizean futbol-partidu

bat antolatzeko, teatro- argazki- edo xaketa bat animatzeko. Gainera ekintza hauetan iaioa izatea, sarritan ongi etortzen zaio irakasleari oporretan edo tarte libreetan beste diru batzuei irabazteko ere.

UDALAREN ARDURA AISIA-GAIETAN

Udalari dagokionean frantses gurasoek argi zituzten ideiak: eskubidea eta obligazioa ditu ekipamenduak hornitzeko, aukerak urratzeko eta abegi-egiturak eraikitzeko, nahiz eta bizilagunak ez beraietaz baliatu. Sarritan gertatu ohi da, halere, udalak bere aukera guztien berri ematen duen aldizkari edo buletin bat atera, bizilagunak kexu izaten direla, puntu honetan ez dutelako nahiko luketen adinako erantzunik jasotzen Mesfidantza hau tradizio falta batengatik izan liteke. Bestalde, animadorearen zeregina zulo-betetzaile batenaren gisa ikusten dute. Gogoz kontra bezala hartzen den betekizun bat da: askorentzat gurasoen ordezkari soila da.

AZKEN ONDORIOAK

Azterketa honen amaieran garbi ikusten da, Frantzian, partaide sozial desberdinek anibalentzia nabaria dutela beren ardurara eta erantzukizunari dagokienean aisiarako hezkuntzaren alorrean. Estatuak badirudi ez duela jotzen irakasleei zeregin garrantzizkoago bat alor honetan ematearen bidetik, Ingalaterran bezala, baizik eta animadore profesionalak bultzatzearen bidetik areago jotzen duela. Bestalde, irakasleek ez dute ematen oso prest leudekeenik protagonismo hori bere gain hartzeko ere. Gurasoak, berriz, beraiek ere gaizki prestatuak daudelarik aisiaren zibilizazioan murgiltzeko, onartzen dute nekez ase ditzaketela beren seme-alabek gai hauetan dituzten eskakizunak, nahiz eta funtsezkotzat jotzen dituzten. Zalan-tzan geratzen dira erantzukizun hau udalari edota irakaslegoari delegatzeko orduan, eta horretatik sortzen zaie ondoeza.

Ingelesen bidea interesgarria izan daiteke aukera berriak eskaintzeko. Edozein modutara, "sortu egin behar da denbora eta ez nozitu". Andre Henryk dioenez, eta ezinbestekoa da gazteen denboran behar bezalako aisiara-hezkuntza bat sartzea. Gero eta legeria ugariagoa agertzen ari den arren, Frantziak oraindik oinегitura eskasa du maila guztietan, esparru honetan beharrezkoa den bilakaera gerta dadin.

X. Mendiguren